

Azterketak



ELAren balorazioa
Eusko Jaurlaritzak
eta Nafarroako gobernuak
2012rako aurkeztu dituzten
aurrekontu proiektuei buruz

ELAren Azterketa Bulegoa

Non zer

SARRERA	3
I. HEGO EUSKAL HERRIKO AURREKONTU	
PROIEKTUEI BURUZKO ONDORIO BERTINAK	4
1. Azken urteotako aurrekontu emaitza	4
A) EAeko aurrekontu-emaitza	4
B) Nafarroako aurrekontu-emaitza	5
2. Zor publikoa	5
A) EAeren zor publikoa	5
B) Nafarroako zor publikoa	7
3. Gastu publikoa osasunean	8
4. Hezkuntza arloko gastu publikoa	9
II. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 2012RAKO	
AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA	10
1. Gastu publikoa	10
2. Osasun arloko gastu publikoa	13
3. Hezkuntza arloko gastu publikoa	14
4. Etxebizitza arloko gastu publikoa	16
5. Pobreziaren eta gizarte kanporaketaren aurkako borroka	18
6. Eusko Jaurlaritzaren inbertsioak	19
7. Sektore publikoari egindako murrizketak	20
8. Gastu fiskalak	20
III. NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA	21
1. Jaitsi egin da gastu publikoak ekonomian duen pisua	21
2. Egiatzko gastua iragarritakoa baino are txikiagoa da	22
3. Urtetik urtera gastu publikoa murrizten da	22
4. Gastua departamentuz departamentu	23
5. Osasun arloko gastu publikoa	24
6. Hezkuntza arloko gastu publikoa	25
7. Euskara arloko gastu publikoa	26
8. Etxebizitza arloko gastu publikoa	27
9. AHTren finantzaketa	28
10. Iruzur fiskalaren aurkako borroka	29
11. Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektua	30

SARRERA

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak 2012. urterako aurrekontuak aditzera eman dituzte. Gobernu bakoitzak bere aurrekontuak egin baditu ere, ondorio nagusia da bi proiektuetan gastu publikoa murriztu egin dela. Horri erantsi behar zaio, gainera, 2010ean eta 2011n ere gastu publikoa jaitsi egin zela.

Krisiak bazterrak gogor jo dituen honetan, gastu publikoa murriztea kaltegarria da, horren ondorioz krisia areagotu eta langabezia handituko baita, eta gizarte-babesak ere behera egingo du.

Hego Euskal Herriko Administrazioek tarte zabala dute gastu publikoa handitzeko; diru-sarrera gehiago lor litzakete, adibidez gastu fiskalak murriztuta, edo fiskalitatea aldatuta, diru gehiago biltze aldera (esaterako, soldatetik ez datozen errenten iruzur fiskalaren kontra borrokatuz, eta errenta altuenentzako eta kapitalaren errententzako zerga-presio txikiagoa ekarri duten erreforma fiskalak bertan behera utziz). EAEko eta Nafarroako administrazioek hartu duten aukera, beraz, bidegabeena eta antisozialena da guztien artean; izan ere, uko egin diote egitura fiskala nabarmen aldatzeari eta, horren ondorioz, gastua murriztearekin, krisia oro har herritarren bizkar gainean erori da; gastu sozialaren behar gorrienean dagoen jendearen bizkar gainean, bereziki.

Txosten honen bidez, gainera, ikusiko dugu gure administrazioek askoz ere diru gutxiago bideratzen dutela osasunera eta hezkuntzara inguruko herrialdeetan bideratzen dutena baino, eta gauza bera gertatzen dela gainerako arlo sozialetan. Horrek guztiak agerian uzten du garapen handieneko ekonomien ahaleginak eta haien estandarrak askoz ere hobekak direla hego Euskal Herrikoak baino, gizarte arloari dagokionean.

I. HEGO EUSKAL HERRIKO AURREKONTU PROIEKTUEN GAINEKO ONDORIO BERDINAK

1. AZKEN URTEOTAKO AURREKONTU EMAITZA


A) EAEko aurrekontu-emaizta

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, 2011. urtealdiaren bukaerako diru-sarrerak gastuak baino 49,5 milioi gehiago izango dira. Hau da, Eusko Jaurlaritzak uko egin dio diru hori gastatzeari, dirutza hori eduki arren, eta arlo guztietan gabezia handiak izanda ere.

Aurreko bi urtealdien itxieran defizita izan da; zehazki, 2009an, 2.512,2 milioi euroko defizita izan zen (BPGren % 3,9) eta 1.523,4 milioikoa 2010ean (BPGren % 2,3). 2001etik 2010era, Eusko Jaurlaritzaren defizita metatua 1.634,1 milioi euro da.

Eusko Jaurlaritzak bere defizita BPGren % 1,3ra mugatzea onartu zuen 2011rako.

**Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu emaitza
(milioika eurotan), 2001-2010**




Iturria: Aurrekontuak gauzatzeari buruzko estatistika, 2010eko 4. hiruhilekoa

B) Nafarroako aurrekontu-emaitza

Azken 10 urte honetako aurrekontu-emaitzari begira, 5 urtetan defizita izan da, eta 5etan, berriz, superabita. 2000tik aurrerako emaitza metatua 443,7 milioi euroko defizita da. Informazioa daukagun azken urtealdia 2010. urtealdiari buruzko informazioa ere badaukagu (handik aurrera ez), eta, defizita 384,8 milioikoa izan zen; hau da, BPGren % 2,1.

Nafarroako gobernuaren aurrekontu emaitza (milioika eurotan), 2001-2010



*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorraren likidazioaren laburpena
(Nafarroako Gobernua)*

2. ZOR PUBLIKOA

A) EA Eren zor publikoa

Administrazio publikoen zorpetze maila aurrekontu-emaitzarekin lotua dago.


Aurrekontu-proiektuak dio Eusko Jaurlaritzak aurreikusi duela 2012an guztira 2.246,11 milioi euroko zorra izan dezakeela.

Eusko Jaurlaritzak 2011 urtean bukaerarako aurreikusi duen zor bizia 4.382,1 milioi euro da; hau da, BPGren % 6,5.

Eusko Jaurlaritzaren zor bizia 3.968,7 milioi euro izan zen, 2010 urtean bukaeran (BPGren % 6,1). 2010eko zenbaki horrek, 2011koarekin batera, erakusten du aldatu egin dela zor biziaren bilakaerak 2009ra arte izandako joera. Grafikoak ederki erakusten du Eusko Jaurlaritzaren zorrak pisua etengabe galdu duela 2007ra arte, zorra jaulki ez izanaren ondorioz eta lehendik zegoen zorra amortizatzearen ondorioz. 2008 urtean, zorra BPGren 0,2 puntu handitu zen, harik eta BPGren % 0,7ra iritsi arte; 2009an, % 3,2 izatera iritsi zen; 2010ean, % 6,1 izatera, eta, 2011n, % 6,5 izatera, aurreikuspenen arabera.

Maila hori oso apala da. Eusko Jaurlaritzak EAeko gastu publikoaren erdia baino gehiago egiten du (gainerakoa Espainiako Gobernuaren, Foru Diputazioen eta udalen eskuetan dago). Eta Lisboako Itunean ezarritakoaren arabera, zor publikoaren muga BPGren % 60 da.

Eusko Jaurlaritzaren zor bizia (BPGren %) 2001-2011




Iturriak: 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2001-2010, Eustat

B) Nafarroako zor publikoa

2010 urtean (informazioa dagoen azken urtea) Nafarroako zor publikoa 1.500,1 milioi euro izan zen; hau da, 2009an baino % 48,7 handiagoa, eta 2000koa baino % 131,2 handiagoa. Nafarroako zor publikoak BPGrekiko zer-nolako bilakaera izan duen kontuan hartzen badugu, ikusten da 2008an joera aldatu egin zela; izan ere, hainbat urtez jaitsi ondoren, goranzko joera hasi zen; horrela, 2007an, BPGren % 3,5 izan zen, eta 2010ean, berriz, arestian aipatu dugun % 8,0.

Nafarroako zorpetze publikoari eta pribatuari dagokienez, esan behar da zorpetze publikoaren maila (zor bizia) BPGren % 8,0 izan zela 2010 urtean; pribatuak, aldiz, BPGren % 125,9 jo zuen. Hau da, Nafarroako Gobernuak emandako informazioaren arabera, zorpetze pribatua publikoa baino 15 aldiz handiagoa da.

Nafarroako gobernuaren zorpetzea eta zorpetze pribatua (BPGren %). 2010




Iturria: Ekonomiaren eta Nafarroako Ogasunaren egoera eta perspektibak (Nafarroako Gobernuak), IEN

3. GASTU PUBLIKOA OSASUNEAN

Garrantzitsua da Europako batez bestearekiko aldea. Eurostat erakundearen arabera, izan ere, 2009an (azken informazio konparatua urtealdi horri baitagokio), osasun arloko gastu publikoa, bana beste, BPGren % 7,4 izan zen, Europar Batasuneko 27 Estatuak kontuan hartuta; portzentaje hori urte hartan bertan 0,6 puntu igo zen. Horrenbestez, Europako batez bestekora iristeko, osasun-gastuak % 37 gehiago igo beharko luke 2012an; hau da, 2012rako aurrekontua 1.260 milioi eurotan goratu beharko litzateke.

Era berean, nabarmentzekoa da zer tokitan dagoen Hego Euskal Herria, aztertu diren gainerako herrialdeen artean (2008ko datuak erabilia); eta Hego Euskal Herria, hara, azken tokian dago osasun arloko gastu publikoari dagokionez. Era berean, nabarmendu behar da EAEko eta Nafarroako osasun arloko gastu publikoa (BPGren portzentajea neurtua) 1,3 eta 1,4 puntu dagoela hurrenez hurren Espainiar Estatuaren azpitik.

Osasun arloko gastu publikoa Europan 2008




Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2008, Eustat, Aurrekontu gauzatua 2008 (Nafarroako Gobernu), IEN, Eurostat.

4. HEZKUNTZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA

Osasunean gertatzen den bezala, hezkuntzan egiten den gastu publikoa Europako gastuaren batez bestekoaren oso azpitik dago. Zehazki, 2008an (Europako azken informazioa urte horri baitagokio), hezkuntza arloko gastu publikoa BPGren % 5,1 izan zen; EAEn, aldiz, BPGren % 3,8 izan zen, eta, Nafarroan, BPGren % 3,3. Hezkuntzari dagokionez, beraz, EAE Europako batez bestekoaren azpitik dago: BPGren 1,3 puntu azpitik, zehazki, hau da, 800 milioi euro baino gehixeago.

Azpitarratu behar da, bestalde, aztertutako herrialde guztiek BPGren portzentaje handiago bat bideratzen dutela hezkuntzara Hego Euskal Herrian baino.

Hezkuntza arloko gastu publikoa Europan, 2008



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2008, Eustat. Aurrekontu gauzatua (Nafarroako Gobernua), IEN, Eurostat.

II. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 2012RAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

1. GASTU PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzak 2012rako aurkeztutako aurrekontuen proiektuak 10.449,2 milioi euroko gastua dakar. Gastuaren bilakaera modu homogeneoan baloratzeko, dena den, dirutza horri diru kopuru hauek kendu behar zaizkio:

- Enplegurako politika aktiboetara bideratutako 582,7 milioi euro, Lanbiden sartutakoak. Eskumen hori Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago 2011ko urtarriletik aurrera. Dirutza hori azterketan sartuko bagenu, aurreko urteekiko alderaketak desitxuratuko lirateke. Nolanahi ere, gogoratu behar da eskumen horrek ez zuela berekin erabakimenik ekarri enplegu-politikan eta ekonomikoki kaltegarria izan zela EAerentzako.
- Beste urte batzuetan bezala, ez dugu kontuan hartu «trenbide sare berrirako kudeaketa kredituak» kontzeptua, AHTrekin lotutakoa, 2012ko proiektuan 350,7 milioi euro jotzen duena. Arrazoa da kontzeptu horri dagokion dirutza urtero ematen diola Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari; beraz, zenbateko horiek ez dira Eusko Jaurlaritzaren egiazko gastuak. AHTren beste gastu batzuk, dena den, ez ditu Espainiako Gobernuak finantzatzen, eta dirutza horiek bildu egin ditugu.

Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak 2012rako taxututako aurrekontuen proiektuak 9.515,8 milioi euroko gastua bildu du, aurreko urteetako irizpide berberak kontuan hartuta.

2012rako aurrekontuen gastua, beraz, 204,4 milioi euro gutxiagokoa da 2011ko itxieraren aurreikuspenaren aldean, eta 644,7 milioi euro gutxiagokoa, 2010ean egindako gastuarekin alderatuta.

Diruz hornituen dagoen saila berriz ere Osasun eta Kontsumoa izan da, guztiaren % 35,8 baita; ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila dator, guztiaren % 27,8rekin. Ondotik Barne Saila dator, guztiaren % 6,9rekin; Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, guztiaren % 4,6rekin, eta Gizarte Gaietako Saila, aurrekontu guztiaren % 3,6rekin.

**2012ko Aurrekontuen proiektua eta 2011ko
likidazioaren aurreikuspena era homogeneoan.
Eusko Jaurlaritzza**

	2012ko Proiektua			2011ko Aurreikuspena	
	Miloi euro	% Guztira	%/BPG	Miloi euro	%/BPG
Osasuna eta Kontsum.	3.403,1	35,8	4,9	3.406,7	5,1
Heziketa, Unib. eta Ikerketa	2.645,2	27,8	3,8	2.566,6	3,8
Barne Saila	658,9	6,9	0,9	654,9	1
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	342,9	3,6	0,5	926,3	1,4
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa	434,4	4,6	0,6	390,8	0,6
Kultura	266,2	2,8	0,4	261,2	0,4
Beste batzuk	1.765,1	18,5	2,5	1.513,7	2,3
Guztira	9.515,8	100	13,7	9.720,2	14,5

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Eustat

2012ko aurrekontuetako gastu publiko homogeneoa BPGren % 13,7 da; horrek esan nahi du EAEn ekonomian sortzen diren 100 euro bakoitzeko, 13,7 euro Eusko Jaurlaritzak egindako gastu publikora bideratuko direla.

Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoak ekonomian izango duen pisua BPGren 0,8 puntu jaitsiko dela, 2011ko urtealdiaren itxierako aurreikuspenaren aldean (BPGren % 14,5), eta BPGren % 1,8 puntu, 2010ean egindako gastuaren aldean (BPGren % 15,5). Eusko Jaurlaritzak egindako gastuak eutsiko balio 2010ean izan zuen pisuari, datorren urterako aurrekontuetan bildutako dirutza baino 1.200 milioi euro gehiago bideratu beharko lituzke gastura.

Dirutza garrantzitsua da, eta Eusko Jaurlaritzak huraxe ez gastatzeko erabakia hartu du. Eusko Jaurlaritzza, krisi ekonomikoaren zurrumbilan, aurrekontua murrizten ari da, eta horrek aipatu krisia areagotu, langabezia igoarazi eta gizarte-babesa murrizten du.


2012ko Aurrekontuen proiektua, 2011ko likidazioaren aurreikuspena eta 2010eko likidazioa era homogeneoan, Eusko Jaurlaritza

	2010	2011	2012
Miloi euro	10.160,5	9.720,2	9.515,8
BPG %	15,5	14,5	13,7

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2010, Eustat

Ondoko grafiko honek erakusten du zer-nola bilakatu den Eusko Jaurlaritza gastuaren pisua 2001etik hona. Ikusten denez, 2008ra arte, halako joera bat izan zen urtez urte, baina 2009an hautsi egin zen, gastu publikoaren pisua handitzearen ondorioz (BPG jaitsi baitzen); gero, 2010ean, 2011n eta 2012an berriz ere murriztu egin da.

Gastu publikoa era homogeneoan (BPG %), Eusko Jaurlaritza, 2000-2012



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2000-2010, Eustat

2. OSASUN ARLOKO GASTU PUBLIKOA

2012 urteko aurrekontuetan, 3.403,1 milioi euroko gastua bideratu da osasun arlora; hau da, 2010ean gastatu zena baino 139,2 milioi gutxiago, eta 2011ko itxieraren aurreikuspena baino 3,5 milioi gutxiago.


Osasun arloko gastu publikoa (BPG%). Eusko Jaurlaritza 2010-2012

	2010	2011	2012
Milioi euro	3.542,3	3.406,7	3.403,1
BPG %	% 5,4	% 5,1	% 4,9

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2010, Eustat

Osasun arloko gastu publikoaren pisuak ekonomian izan duen bilakaera gastu guztiaren bilakaeraren antzekoa da; izan ere, 2008ra arte, halako joera konstante bat izan zen, eta 2009an gora jo zuen (BPGk urtealdi hartan izandako jaitsieraren ondorioz), eta berriz ere behera egin zuen 2010, 2011 eta 2012 urtetan.

Osasun arloko gastu publikoa (BPG%). Eusko Jaurlaritza



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2001-2010, Eustat

3. HEZKUNTZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA

2012 urteko aurrekontuetan, 2.645,2 milioi euroko gastua bideratu da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera; hau da, 2011n baino 78,6 milioi gehiago, baina 2010ean baino 138,42 milioi gutxiago.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak BPGren % 3,8ko pisua izango du 2012an; hau da, 2011ko itxieraren aurreikuspeneko balio berbera eta 2010eko gastua baino 0,5 puntu gutxiago.

**Hezkuntza arloko gastu publikoa.
Eusko Jaurlaritza 2010-2012**

	2010	2011	2012
Miloi euro	2.783,62	2.566,6	2.645,2
BPG %	% 4,3	% 3,8	% 3,8

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorraren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2010, Eustat


Hezkuntza arloko gastua hezkuntza-tarteen arabera aztertzen badugu, esan behar da 937,4 milioi euroko gastua jasota dagoela 2012ko aurrekontuetan Bigarren Hezkuntzarako eta Lanbide Heziketarako (BPGren % 1,34); 924 milioi eurokoa, Haur eta Lehen Hezkuntzarako (BPGren % 1,33), eta 342,2 milioi eurokoa Unibertsitateetarako (BPGren % 0,5).

Hezkuntza arloko gastu publikoa hezkuntza tarteen arabera, Eusko Jaurlaritza, 2010-2012

		2010	2011	2012
Bigarren Hezkuntza, LH	Miloi euro	957,8	913,3	937,4
	BPG %	% 1,5	% 1,4	% 1,3
Haur eta Lehen Hezkuntza	Miloi euro	1.066,9	901	924
	BPG %	% 1,6	% 1,3	% 1,3
Unibertsitateak	Miloi euro	356,5	331,3	342,2
	BPG %	% 1,6	% 1,3	% 1,3

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorraren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2010, Eustat

Hezkuntza arloko gastu publikoa hezkuntza mailen arabera (BPG%). Eusko Jaurlaritz, 2001-2012



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2001-2010, Eustat

4. ETXEBIZITZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA

2012 urteko aurrekontuetan, 146,7 milioi euro bideratu dira etxebizitza arlora; hau da, 2011n baino 5,2 milioi gehiago, baina 2010ean baino 35,9 milioi gutxiago. 2003ra arte egin behar da atzera, etxebizitza arloan azken bi urtean bezain kontusail apala aurkitzeko.

Etxebizitza arloko gastu publikoaren pisua BPGren % 0,21 da; hau da, 2011n adina eta 2010ean baino 0,07 puntu gutxiago.


Etxebizitza arloko gastu publikoa. Eusko Jaurlaritza, 2010-2012

	2010	2011	2012
Miloi euro	182,6	141,5	146,7
BPG %	% 0,28	% 0,21	% 0,21

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2010, Eustat

Etxebizitza arloko gastu publikoa azken hamabi urte honetako BPGrekin alderatzen badugu, are etsigarriagoa da; izan ere, 2001. urtera arte egin beharko genuke atzera, ekonomian pisu txikiagoa izan duen etxebizitza arloko gastu publikoa aurkitzeko. Horrek esan nahi du Patxi Lopezen Gobernuak atzera egin duela aurreko gobernuek aurrekontuetan egindako aurrerapauso txiki-txikietan. Gobernuak, beraz, argi erakutsi du zer helburu duen: etxebizitzarekin negozio ederra egiten dutenen interesak lehenetsi ditu gizarteak etxebizitza arloan dituen behar handien gainetik.

Etxebizitza arloko gastu publikoa (BPG %). Eusko Jaurlaritza, 2001-2012



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko Administrazio Orokorren Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2001-2010, Eustat

5. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO BORROKA

EAEko ekonomia krisian sartua zen, 2009ko urtean Eusko Jaurlaritzak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen garapena egin zuenean, eta prozesu horrek, egia esan, are gehiago murriztu eta mugatu zituen beharrea zegoen jendearentzako gizarte laguntzak. Murrizketarik handienetako bat hauxe izan zen: une hartatik aurrera, gizarte laguntzak gehienez ere izango ziren bi etxebizitza bakoitzeko, etxean familia bat baino gehiago bizi izanda ere.

Horrela, ordura arte laguntza horiek kobratzen aritutako jende asko holako laguntzak jasotzeko eskubiderik gabe gelditu ziren. Era berean, jende askori, jaso beharreko laguntzak murriztu egin zitzaizkien.

Joan den azaroaren 24an, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Lege berri bat onetsi egin zen, eta aldaketa horrek areagotuko du laguntza horien beharrea dagoen jendearen egoera larria; izan ere, beste neurri batzuen artean, 3 urtez errolatuta egotea beharrezkoa baita, laguntzak jasotzeko.

2012ko aurrekontuen proiektuaren bederatzigarren xedapenak % 7 murriztu egiten ditu Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoak; murriztu ere, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, bai eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria ere. Hau da, % 7 murriztuko dira gure gizartean egoerarik txarrean dauden familiek jasoko dituzten zenbatekoak. Inolako zalantzarik gabe, moralik gabeko neurria da, guztiz antisoziala. Era berean, % 7 murriztuko dira familia eta lana bateragarri egiteko neurriak.

Zehazki esateko, beraz, prestazio bakoitzerako kontusailak zehatz-mehatz aztertuta, ondorioa hauxe da:

- Gizarte larrialdietarako laguntzetarako kontusaila 17,3 milioi euro da; hau da, 2010eko eta 2011ko berbera.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ez dira eskubide bat; beraz, laguntza horietarako kontusaila bukatzen denean, hartzaileek laguntzarik gabe gelditzen dira, Gobernuak ez badu arlo horretarako kontusaila diru gehiagoz hornitzen.

- Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez, 280 milioi euro jaso dira; hau da, 2010ean baino 1,4 milioi euro gutxiago eta 2011n jasotako dirutza berbera. Gero eta jende gehiagok hartzen du errenta hori; hori jakinda, beraz, pentsatzekoa da 2011. urtealdiko kontusaila ez dela nahikoa izango.
-

- Etxebizitzako Laguntza Osagarria 42 milioi euroz hornitu da; hau da, 2010ean baino 1,4 gutxiago, eta 2011n jasotako dirutza berbera. Hori bereziki kezkarria da, gaur egungo zailtasun ekonomikoak nabarmen okertu baitira etxebizitza bat alokatzerakoan.

**Gizarte laguntzerako aurrekontuetako kontusailak
(milioika eurotan). Eusko Jaurlaritza, 2010-2012**

	2012	2011	2010
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	17,3	17,3	17,3
Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak	280	280	281,4
Etxebizitzako Laguntza Osagarria	42	42	43,1
Guztira	339,3	339,3	341,8

*Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko
Aurrekontu Orokorren Proiektua*

6. EUSKO JAURLARITZAREN INBERTSIOAK

Eusko Jaurlaritzaren 2012ko Aurrekontu Orokorren proiektuak bildutakoaren arabera, inbertsio errealak 617,5 milioi euro izango dira. Erdia baino gehiago AHTera doa (379,7 milioi euro). Dirutza horretatik, 350,7 milioi euro Espainiako Gobernuak finantzatuko ditu, Eusko Jaurlaritza Madrilen erabaki eta inposatutako azpiegitura baten exekutatzailerik hutsa baita. Ez dira berreskuratuko, bestalde, AHTera bideratutako beste 29 milioi euro.

Trenbide-sareko, hezkuntza-sistemako, osasun arloko, etxebizitza arloko.... gainerako premiak, ordea, oso diru gutxiz hornituak daude. Aski da AHTri eskaintzen zaizkion diruak eta inbertsio-kontusail hauek alderatzea:

Eusko Jaurlaritzaren inbertsioak (milioi euro), 2012

Kontzeptua	Miloi euro
AHT Finantzaketa Espainiar Estatura	350,7
AHT Finantzaketa Propioa	29,0
Beste Trenbide Batzuk	7,5
Metroa	4,5
Etxebizitza	40,9
Haur eta Lehen Hezkuntza	29,0
Bigarren Hezkuntza eta Lh	38,9
Inbertsioa Guztira	617,5

*Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko
Aurrekontu Orokorren Proiektua*

7. SEKTORE PUBLIKOARI EGINDAKO MURRIZKETAK

Langileen atalean, 2012ko aurrekontuen proiektuaren testua irakurrita, argi dago Eusko Jaurlaritzak berretsi duela administrazioaren zerbitzuan ari diren langileek jarraituko dutela krisiaren ondorioak ordaintzen. Hartara, 2012rako, soldatak izoztea inposatu du, 2011n bezalaxe, eta 2010aren erdian ere soldatak murriztea inposatu ondoren.


Negoiazio kolektiboari dagokionez, Eusko Legebiltzarrean onesteko proposatu den testua izugarri larria da. Berriz ere esaten du erabat deusezak izango direla soldata igotzea dakarten erabakiak, baldin eta etorkizuneko Aurrekontuei buruzko Legeek erabakitzen dutenaren kontra badoaz; horrek esan nahi du bukatu egin dela arlo horretako negoziazio kolektiboa.

Era berean, esan beharra dago Gobernuak mahai Orokorrera eraman dituen murrizketak PSOEn emendakinak bezala izapidetzen ari direla. Horrek agerian uzten du ez dagoela negoziatzeko borondaterik.

8. GASTU FISKALAK

Eusko jaurlaritzaren 2012ko Aurrekontu Orokorren Proiektuak 6.011,5 milioi euroko dirutza jaso du gastu fiskaletan (kenkariak, salbuespenak, murrizketak, etab.); horrek esan nahi du dirutza hori biltzeko aukera izan dela, baina bildu gabe uztea erabaki dutela. Argi dago gastu fiskalek oso nabarmen baldintzatzen dutela gastu publikoaren maila.

Gastu fiskalak eta inbertsio errealak (guztira%), 2012



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko Aurrekontu Orokorren proiektua

III. NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA


1. JAITSI EGIN DA GASTU PUBLIKOAK EKONOMIAN DUEN PISUA

Nafarroako Gobernuak 3.837,7 milioi euroko aurrekontu bat aurkeztu du 2012rako. Dirutza horren barruan, hala ere, AHTera bideratutako gastua sartua dago. Nafarroak gastu hori aurreratuko du, baina azkenean, Espainiar Estatuak ordainduko du; beraz, zenbateko horiek egiazki ez dira nafar gobernuaren gastuak. Beraz, gastuak zer bilakaera izan duen era homogeneoan baloratzeko, AHTri dagozkion 134 milioi euroak kenduko ditugu.

Horren ondorioz, Nafarroako 2012rako gastu publikoa 3.703,7 milioi euro da. Gastu hori 2012rako kalkulatu den BPGren % 18,6 da.

Grafiko honetan ageri da nola bilakatu den Nafarroako Gobernuaren gastua, 2002tik hona. 2012rako aurreikusita dagoen gastua (BPGren % 18,6 hori) ikusita, esan behar da 1,8 puntu egin duela behera 2011rekin alderatuta, eta 2,9 puntu egin duela behera, 2010aren aldean. Jaitsiera horren ondorioz, gastua azken 10 urte honetako mailarik apalena da.

**Gastu publikoa (BPG%).
Nafarroako Gobernua, 2002-2012**



Iturriak: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua, 2002-2010 arteko aurrekontu gauzatua, IEN

**2. EGIAZKO GASTUA IRAGARRITAKOA
BAINO ARE TXIKIAGO DA**

2011ko irailaren 28an, Nafarroako Gobernuak 294,3 milioi euroko murrizketa onetsi zuen Nafarroako Aurrekontu Orokorrean. Bi bide erabili dituzte murrizketa hori gauzatzeko: bata, kontusailetako gastua murriztea edo 2011ko kontusail batzuk ezabatzea, eta, bestea, 2011ri dagozkion gastu batzuk 2012. urtera pasatzea.

Horrek esan nahi du 2012rako aurrekontuetan badaudela 2011n gauzatu behar izan ziren gastuak. Horrenbestez, 2012an egingo den gastua txikiagoa da egiazki, 2011ko gastu batzuekin baldintzatua baitator.

3. URTETIK URTERA GASTU PUBLIKOA MURRIZTEN DA

2012rako gastu publikoak behera egin du, hala BPGren ehunekoetan nola eurotan.

Proiektuan, gastu publikoa BPGren puntuetan murriztu da, eta eurotan ere bai. 2012rako aurrekontuen proiektuak 220 milioi euro gutxiago ditu 2011ko itxieraren aurreikuspenak baino: hau da, jaitsiera % 5,6 da.

Baina, krisi-urteotan, gastu publikoak Nafarroan izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, ohartuko gara urtetik urtera behera doala gastu gauzatua, eta behera ere, aurrekontua. 2012an, izan ere, 2008an baino 299,5 milioi euro gutxiago sartu dira aurrekontuan; hau da, % 7,5 gutxiago.

**Nafarroako aurrekontuaren bilakaera (euro).
2008-2012**

2012	2011	2010	2009	2008
3.703,7	3.923,7	3.974,2	3.992,2	4.003,2

Iturriak: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua, 2010eko aurrekontu gauzatua

4. GASTUA DEPARTAMENTUZ DEPARTAMENTU

Osasun Departamentura bideratu da aurrekontuetako dirutzarik handiena; 914,6 milioi euro baitira, hau da, aurrekontu guztiaren % 23,8. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aurrekontuaren % 20,3 hartu du (780,9 milioi euro), eta, ondotik, Hezkuntza Departamentua dator, aurreikusitako gastua 598,9 milioi euro baita, hau da, aurrekontu guztiaren % 15,6.

Aurrekontu txikiena duen departamentua, ordea, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua da, 60,6 milioi euroko aurrekontua baitu (guztiaren % 1,6), bai eta Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirol eta Gazteria Departamentua ere, 305,2 milioi euroekin (aurrekontuaren % 8).

**Gastua departamentuen arabera. Nafarroako
gobernua (euro, guztira %, BPG %). 2012**

	Aurrekontu Proiektua	% Guztira	% BPG
Osasuna	914,6	23,8	4,6
Ekonomia eta Ogasuna	780,9	20,3	3,9
Hezkuntza	598,9	15,6	3,0
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	514,1	13,4	2,6
Landa Gar., Industria, Enplegu eta Ingurumena	324,3	8,4	1,6
Sustapen eta Etxebizitza	322,4	8,4	1,6
Gizarte P., Berdintasuna, Kirol eta Gazteria	305,2	8,0	1,5
Kultura, Turismoa eta Eehh	60,6	1,6	0,3
Nafarroako Parlamentua	16,2	0,4	0,1
Nafarroako Kontseilua	0,5	0,0	0,0
Guztira	3.837,7	100	19,2

Iturria: Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, IEN

5. OSASUN ARLOKO GASTU PUBLIKOA

2012rako aurrekontuen proiektuan 914,6 milioi euroko gastua bideratu da osasun arlora; hau da, 2011ko itxieraren aurreikuspena baino 58,9 milioi gutxiago. Horrela, osasun arlora bideratuko den gastua BPGren % 4,6 izango da 2012an; hau da, 0,5 puntu jaitsi da, 2011rekin alderatuta.

Azken hiru urte honetako gastuaren bilakaerak erakusten du 2012an bideratu dela dirutzarik txikiena osasun arlora. 2012rako, izan ere, 2010ean baino 121,5 milioi euro gutxiago bildu dira aurrekontuetan, eta puntu bat galdu da BPGrekiko (% 5,6tik % 4,6ra igaro baita). Horrek esan nahi du 2010eko BPGrekiko pisu berari eutsi izatera, aurrekontuetan bildutako dirutza baino 199,2 milioi euro gehiago bideratuko beharko zirela osasunera, 2012an.


**Osasun arloko gastu publikoa (euro eta BPG %).
Nafarroako Gobernua, 2010-2012**

	2010	2011	2012
Eurotan	1.036,1	973,1	914,6
BPG %	5,6	5,1	4,6

*Iturriak: Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua,
2011ko aurrekontu bateratua, 2010eko aurrekontu gauzatua IEN*

Osasun arloko gastua ez da inola ere nahikoa Nafarroak osasun arloan dituen gero eta premia handiagoei egokiro erantzuteko, eta, gastu joera hori ikusita, nekez murriztuko da herrialde industrializatuekiko dagoen gastu defizita.

**Osasun arloko gastu publikoa (BPG%).
Nafarroako Gobernua, 2002-2012**




Iturriak: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorraren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua, 2002-2010 arteko aurrekontu gauzatua, IEN

6. HEZKUNTZA ARLOKO GASTU PUBLIKOIA

2012rako aurrekontuen proiektuan 598,9 milioi euroko gastua bideratu da hezkuntza arlora. Hezkuntza arloko gastu publikoia jaitsi egin da hala eurotan nola BPGrekiko pisuan, azken hiru urte honetan. Zehazki, 2011ko gastu bateratuan 48,5 milioi euro gutxiago bildu dira aurrekontuetan, eta horri murrizketak ere kendu beharko litzaizkioke, eta 2010ean baino 69,2 milioi gutxiago ere bai.

Horren ondorioz, hezkuntza arloko gastu publikoia BPGren % 3,0 izango da 2011n. Horrek esan nahi du 0,4 puntu jaitsi dela 2011ren aldean, eta azken 10 urte honetako mailarik apalena da, 2005ean eta 2006an adina.

Hezkuntza arloko gastu publikoa (BPG %). Nafarroako Gobernua, 2002-2012



Iturriak: 2011rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2010eko aurrekontu bateratua, 2001-2009 arteko aurrekontu gauzatua, IEN

BPGrekiko pisua jaitsi da, beraz. Horrek esan nahi du, 2011ko ratio berari eutsi izatera, 78,9 milioi euro gehiago bideratuko zirela, eta 119,8 milioi euro gehiago, 2010eko BPGrekiko pisuarekin.

Hezkuntza arloko gastu publikoa (Euro eta PIB%). Nafarroako Gobernua, 2010-2012

	2010	2011	2012
Eurotan	668,1	647,4	598,9
BPGrekiko (%)	3,6	3,4	3,0

Iturriak: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua, 2010eko aurrekontu gauzatua, IEN

7. EUSKARA ARLOKO GASTU PUBLIKOIA

Euskarentzako dirutzarik handiena Euskarabidearentzako da (Euskararen Nafar Institutuarentzako, alegia), zeinak 2012an 2,3 milioi euroko kontusaila izango baitu; hau da, 2011n baino 0,8 milioi euro gutxiago. Horrek esan nahi du azken urtealdian % 25,8% murriztu dela, eta % 42,5, aldiz, 2008aren aldean (4 milioi).

**Euskarabidearentzako kontusailak (milioika euro).
Nafarroako Gobernua, 2008-2012**

2012	2011	2010	2009	2008
2,3	3,1	3,2	3,1	4,0

Iturriak: Nafarroako Gobernuak 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua, 2008-2010 arteko aurrekontu gauzatua

Euskarabideak ikerketa, garapen, prestakuntza eta aholkularitza eginkizunak ditu, hala administrazio publikoentzako nola bestelakoentzako, betiere euskararen inguruan. Besteak beste, kontusail hauek hartzen ditu: Euskaltzaindiarekiko akordioa; eremu euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia; Gau Eskolentzako diru-laguntza; komunikabideetako euskarazko saioak; hizkuntza politika aztertu, ikertu eta ebaluatzeko programak, proiektu soziolinguistikoak eta azterlanak egitea, etab.

8. ETXEBIZITZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA

Nafarroako Gobernuak 322,4 milioi euro baliatu ditu Sustapen eta Etxebizitza Departamenturako aurrekontu orokorretan; hau da, Nafarroako aurrekontuaren % 8,4, eta BPGren % 1,6.

Etxebizitza arloko Departamentua sakon aldatu egin da, Nafarroako Gobernu berria sartzearekin batera. Horren ondorioz, ezinezkoa da Departamentu horretako aurrekontuaren eta aurreko urteetako aurrekontuaren arteko alderaketarik egitea, programa gehienak ez baitatoz bat.

Horrela, nabarmentzeko moduko programen artean, «Herrilanen Plangintza, Eraikuntza eta Kontserbazioa» dago, 242,5 milioi euroz hornitutakoa (hau da, Departamentuaren aurrekontuaren % 75,2). Programa horren baitan, trenbideari dagozkion kontusailak daude; AHTri dagozkionak, gehienbat (134,2 milioi euro), bai eta A-12 eta A-21 autobietako itzaleko bidesariei dagozkienak ere (54,4 milioi euro).

Aurreko urteetan bezala dirauen programetako bat «Etxebizitzen eraikuntza eta zaharberritzea» da. 59,8 milioi euroz hornitua dago (Departamentuaren % 18,5). Horrek esan nahi du programa horretako gastua 4,2 milioitan jaitsiko dela, 2011rekin alderatuta (64 milioiko gastua izan baitzen), eta 4,9 milioi, 2010ren aldean (64,7 milioiko gastua izan baitzen).

Etxebizitzak eraikitzeke eta zaharberritzeko gastua 2012rako aurreikusia dagoen BPGren % 0,3 da; hots, 2011n baino 0,03 puntu gutxiago eta 2010ean baino % 0,05 puntu gutxiago.

**Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu
Departamentuko gastu publikoa.
Nafarroako Gobernua, 2010-2011**

	2012rako Proiektua	BPG %
Etxebizitzen eraikuntza eta zaharberritzea	59,8	0,30
Herrilanean plangintza, eraikuntza eta kontserbazioa	242,5	1,22
Trenbidea	134,2	0,67
A-12 Iruñea-Logroño autobiarene kanona	40,2	0,20
A-21 Pirinioetako autobiarene kanona	14,2	0,07
Beste batzuk	20,1	0,11
Guztira	322,4	2,57

Iturriak: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, IEN

9. AHTREN FINANTZAKETA

AHTk eragin kaltegarri handia dauka ekonomian eta ingurumenean, eta ez dio gizarteari inolako erabilgarritasunik ekartzen. 2012rako aurrekontuen proiektuan, hala ere, 134 milioi euroko gastua aurreikusia dago, eta, Nafarroako aurrekontu orokorrak 28,4 milioi eurotan murriztu badira ere, azpiegitura hori 101,1 milioi eurotan handitu da 2011tik hona, eta 128,9 milioitan, 2010etik hona.

Gastua hiru ataletan banatua dago, eta handiena hauxe da: «Abiadura handiko trenaren nafar korridorearen eraikuntza», 116 milioi euroz hornitua. «Lanen proiektua eta zuzendaritza» programarako, berriz, 10 milioi euro bideratu dira, eta 8 milioi, azkenik, lurra desjabetzeko.

**Abiadura Handiko Trenarentzako kontusailak
(milioika euro). Nafarroako Gobernua, 2010-2012.**

	2012	2011	2010
Abiadura handiko trenaren nafar korridorea eraikitzea	116,0	30,8	
Abiadura handiko trenaren proiektua eta zuzendaritza	10,0	2,0	5,1
Lurrak desjabetzea abiadura handiko trenarentzako	8,0		
Iruñerriko Abiadura Handiko Trenaren Partzuergoa		0,15	
Guztira	134,0	32,9	5,1

Iturria: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua, 2010eko aurrekontu gauzatua

10. IRUZUR FISKALAREN AURKAKO BORROKA

Ez dago inolako arrazoirik Nafar Gobernuak iruzur fiskalaren aurrean daukan jarrera epela justifikatzeko. Ez du behar adina baliabiderik bideratzen ikuskaritza-zerbitzu egokia antolatzeko, eta horrek esan nahi du iruzurrarekiko permisibitate handia duela.

Nafarroako aurrekontuetan Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuari eskaintzen zaion programak 52 langile bideratu ditu zeregin horretara, eta lanpostu horretatik 10 bete gabe daude.

Zehazki, 16 ogasun teknikari, 14 kudeatzaile eta 4 administrari ari dira. Gainerakoak, unitate, atal eta bulego buruak dira, bai eta zerbitzu-zuzendari bat ere. Hau da, ikuskaritzan diharduten langileen kopuruak bere horretan dirau, ez da aldatu aurreko urteetatik hona. Izan ere, 2010ean eta 2011n, 42 lagun aritu baitziren, bete gabeko lanpostuak kenduta.

Joan den abenduaren 9an, hala ere, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen 4 tributu-agente hasiko zirela. Horrek esan nahi du oraindik ere 6 postu bete gabe leudekeela.

Bestalde, aurreikuspenen arabera, 300-400 ikuskapen egitekoak dira; hau da, 2010ean eta 2011n adina.

**Ikuskaritza fiskalari buruzko datuak.
Nafarroako Gobernua, 2010- 2012**

	2010	2011	2012
Giza Baliabideak	42 (eta 2 bete gabe)	42 (eta 6 bete gabe)	42 (10 bete gabe)
Ikuskatu Beharreko Zergadunak	300 - 400	300 - 400	300 - 400
Ikuskaritza Kop./Ikuskapen Lagun	7 - 10	7 - 10	7 - 10

Iturria: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua eta 2010eko aurrekontu gauzatua

Ikuskapenen bidez, 147,2 milioi euro berreskuratu ziren 2010ean, eta 88,8 milioi euro, berriz, 2011ko abuztuaren 31ra bitarte.

Tributu Ikuskapenetarako Zerbitzuak berreskuratzen duen dirua gastuarekin alderatzen badugu, ohartuko gara 2010ean, 147,2 milioi euro berreskuratu zirela, eta, aldiz, tributuak ikuskatzera bideratutako dirua ez zen 2,8 milioi eurora iritsi. Hau da, tributu ikuskaritzak 53 aldiz berreskuratu zuen bere kostea, 2010ean.

Are kezagarriagoa da halako ratioarekin, hau da, bere kostea 53 aldiz berreskuratzearekin, Nafarroako Gobernuak diru gehiago ez inbertitzea tributuen ikuskaritzan, eta hori gutxi delakoan, hara, gastua ere murriztea. Tributuak Ikuskatzera bideratzen den dirua % 39,3 jaitsi da 2010etik hona, urte hartan 2,8 milioikoa izan baitzen, eta, 2012an, aldiz, 1,7 milioi eurokoa.

**Tributu ikuskapenetako gastuaren bilakaera
(milioika eurotan). Nafarroa, 2010-2012**

2010	2011	2012
Gauzatua	Bateratua	Proiektua
2,8	1,7	1,7

Iturria: Nafarroako Gobernuko 2012rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2011ko aurrekontu bateratua eta 2010eko aurrekontu gauzatua

11. ZENBAIT ZERGA HEIN BATEAN ALDATU ETA BESTE TRIBUTU-NEURRI BATZUK HARTZEKO FORU LEGE PROIEKTUA

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru lege proiektuak hainbat zerga eta tasa erregulatzen ditu. Aldaketa asko egin dira, eta ia denak, zuzenketa teknikoek eragindakoak dira.

Foru Lege Proiektu honi dagokionez, beraz, nabarmendu behar da jarraipena ematen zaiola langilearekiko politika fiskal bidegabeari. Errefusatzekoa da, krisi ekonomikoa jendea gogor jotzen ari den honetan, administrazioak ekonomia suspertzeko eta bultzatzeko neurririk ez hartzea; esaterako, zerga bidez diru gehiago ez biltzea eta gastu soziala ez handitzea. Hitz batez, jarraipena ematen zaio azken urteotan enpresei eta kapitalari zergak murriztu eta kendu izan dizkien politika fiskalari.

Ez da iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko neurririk hartzen

Beste behin ere erreforma fiskalak egiterakoan, ez da inolako neurririk hartzen lanetik ez datozen errenten artean dagoen iruzur fiskal izugarriari aurre egiteko, eta esan behar da Nafarroako Gobernu oso tolerantia dela iruzur horrekin.

a) PFEZ

- Aurrezpen errententzako pribilegioari eusten zaio

Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Zergan hainbat gauza aldatu dira; horietako bat izan da puntu bat igo dela 6.000 eurotik beherako aurrezpen errentei aplikatzen zaien tasa, eta orain % 19 da.

Onartezina da errenta batzuek dituzten pribilegioei eusten jarraitzea. Errenta guztiak, jatorri honetakoak eta hartakoak, denak, portzentaje berean grabatu beharko lirateke.

Neurri horrekin, Nafarroako Gobernuak errenta handiei mesede egiten dien fiskalitatearen alde egiten jarraitzen du.

- Zergaren progresibotasuna gero eta txikiagoa da

Nafarroako Gobernuak tarte bat ezabatu du kuotaren kenkarietan laneko errententzako, eta aldi berean, beste tarte batzuk zabaltu ditu.

Neurri horren bidez, Gobernuaren xedea da, zerga horren progresibotasuna are gehiago suntsitzea, hau da, laneko errentei diru gehiago ordainaraztea.

- Taulak ez dira deflaktatzen

Aurrekontuen proiektu honek ez du aurreikusi PFEZren taulak deflaktatzea; ez da kasualitatea atal hau sartu ez izana, zerga horren igoera estalia baita, eta horrek tarte guztiak ukitzen ditu.

b) Ondarearen gaineko zerga

Nafarroako Gobernuak jarrera apaingarri hutsa darabil, Ondarearen gaineko Zerga berrezarri duela esaterakoan.

Egia esateko, zerga hori jarri egin da, baina aurretik zegoenaren azpitik; beraz, fiskalitatea ez da ezer ere aldatu, errenta altuenei tratamendu pribilegiatua ematen jarraituko baitu.

c) Sozietateen gaineko zerga

- Enplegua sortzeagatiko kenkariak bere horretan diraute Enplegua jarduera ekonomikoaren bidez sortzen da. Gobernuak gauza bakarra lortzen du holako neurrien bidez; hots, Sozietateen gaineko Zerga merkatzea, ezein enpresak ez baitu langilerik kontratatuko, ekoizpen arloko premiek eraginda ez bada, eta inola ere ez jendea kontratatzeak ekar ditzakeen kenkariak eraginda.

- Kenkariak Moderna Fundazioari, dohaintzak emateagatik Tamalgarria da sektore publikoa pribatizatu nahi duen Fundazioarentzako dohaintzak saritzea.

Neurri horrek, gainera, agerian uzten du Fundazioa bultzatu zutenen jarrera; izan ere, iragarri zuten ez zuela batere kosterik izango diru publikoetarako. Frogatua dago, beraz, hori ez dela egia, kenkariak diru publikoaren kopuruak baitira eta kobratu gabe uzten dira.
